ESP. KODEA.	**2025PROB0009**

ESPEDIENTEA	**BEASAINGO BARRENDAIN PLAZAKO URBANIZAZIO OBRAK KONTRATAZEA**
TITULARRA	**BEASAINGO UDALA-LURRALDE SAILA**
TOKIA	**BARRENDAIN PLAZA, BEASAIN.**

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA.

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES.

BEASAINGO BARRENDAIN PLAZAKO URBANIZAZIO OBRAK KONTRATAZEA

CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS DE URBANIZACIÓN DE BARRENDAIN PLAZA

XEDAPEN OROKORRAK

1. klausula. Araubide juridikoa

Agiri honek arautzen duen kontratua, 2017ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko (aurrerantzean SPKL) 25. artikuluaren arabera, administratiboa da. Kontratuaren prestakuntzari, esleipenari, eraginei eta iraungipenari dagokionez, aipaturiko artikuluan aurreikusi gabekoetan, kontratazioari buruzko estatuko oinarrizko legeria bete beharko du: lehenik, 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (aurrerantzean SPKL), zeinak estatuko ordenamendu juridikora ekartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak; bigarrenik, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean HAKLEO), urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bitartez onartua, baldin eta SPKLren kontrakoa ez bada; hirugarrenik, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena; eta azkenik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea. Osagarri gisa aplikatu dira oinarrizkoak ez diren estatuko kontratazioari buruzko arauak, administrazio-zuzenbideari buruzko gainerako arauak eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatuari buruzkoak.

Alderdiek agiri honetan, agiriaren eranskinetan, baldintza tekniko partikularren agirian eta obra-proiektuko dokumentu guztietan ezarritakoa bete behar dute; obra-proiektuko dokumentuak kontratuzkoak izango dira.

DISPOSICIONES GENERALES

Cláusula 1.- Régimen jurídico

El contrato que regula el presente pliego tiene carácter administrativo conforme a lo señalado en el artículo 25 de la LCSP 2017 y se regirá , en cuanto a su preparación, adjudicación, efectos y extinción, en lo no previsto en el mismo por la legislación básica del Estado en materia de contratación: la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, en adelante LCSP, por el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de Octubre, en cuanto no se oponga a lo establecido en la LCSP, en adelante RGLCAP y por el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público y por la de Régimen Local, aplicándose, supletoriamente las normas estatales sobre contratación que no tengan carácter básico, las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las de derecho privado.

Las partes quedan sometidas expresamente a lo establecido en el presente pliego y sus anexos, el pliego de prescripciones técnicas particulares, así como todos los documentos que integran el

proyecto de las obras, que revestirán carácter contractual.

Kontratua agiri honetako edukiarekin bat etorriko da; alde horretatik, agiriko klausulak kontratuaren parte izango dira

El contrato se ajustará al contenido del presente pliego, cuyas cláusulas se entenderán parte integrante de aquél.

Agiri hau eta kontratuzko gainerako dokumentazioa bat ez badatoz, agiri hau nagusituko da.

En caso de discrepancia entre el presente pliego y el resto de documentación que reviste carácter contractual, prevalecerá el presente pliego.

2. klausula. Kontratua esleitzeko prozedura eta espedientea izapidetzeko modua

Cláusula 2.- Procedimiento de adjudicación y forma de tramitación del expediente

Kontratua ez dago erregulazio bateratuaren mende, kontratuaren ezaugarrien koadroko 3. atalean jasota dagoen moduan; hori, 2017ko SPKLko 20. eta 19. artikuluetan zehaztutakoaren arabera

El contrato no se encuentra sujeto a regulación armonizada como así se hace constar en el **apartado 3** del Cuadro de Características del Contrato, de conformidad con lo señalado en los artículos 20 y 19 de la LCSP 2017.

Kontratua prozedura irekia medio esleituko da, 2017ko SPKLko 156. artikulutik 158. artikulura ezarritakoari jarraikiz, eta aipaturiko 3. atalean zehaztutakoaren arabera izapidetuko da.

El contrato se adjudicará mediante procedimiento abierto conforme a los artículos 156 a 158 de la LCSP 2017, y se tramitará de acuerdo con lo señalado en el citado apartado 3.

3. klausula. Kontratuaren premia eta egokitasuna eta kontratazioaren eraginkortasuna

Cláusula 3.- Necesidad e idoneidad del contrato y eficiencia en la contratación.

Kontratu hau prestatzeko dokumentazioan justifikatu dira, 2017ko SPKLko 28. artikuluari jarraikiz, helburu instituzionalak, kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboen izaera eta hedadura, kontratuaren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko eta kontuan hartutako faktore guztiak.

En la documentación preparatoria del presente contrato se justifican, conforme a lo señalado en el artículo 28 de la LCSP 2017 los fines institucionales, la naturaleza y extensión de las necesidades administrativas a satisfacer mediante el mismo, la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, así como los factores de todo orden tenidos en cuenta.

4. klausula. Kontratuaren xedea

Cláusula 4.- Objeto del contrato

Agiri honi dagokion kontratuaren xedea kontratuaren ezaugarrien koadroko 2. atalean adierazitakoa da.

Constituye el objeto del contrato al que se refiere el presente pliego el que se señala en el **apartado 2** del Cuadro de Características del Contrato.

Kontratua ez dugu sortatan banatu obra unitate funtzional zatiezina delako eta ezin delako zatika gauzatu. Izan ere, 99. artikuluko 3b) puntuan adierazitako moduan, kontratuaren xede diren prestazioak bereizteak kontratua teknikoki behar bezala gauzatzea eragotziko luke.

El contrato no se fracciona en lotes porque toda la obra constituye una unidad funcional indivisible y no susceptible de ejecutarlo fraccionadamente, ya que de conformidad con lo dispuesto en el art. 99, 3b) la realización independiente de las diversas prestaciones comprendidas en el objeto del contrato dificultaría la correcta ejecución del mismo desde el punto de vista técnico.

5. klausula. Kontratuaren gutxi gorabeherako balioa

Cláusula 5.- Valor estimado del contrato

Kontratuaren gutxi gorabeherako balioa 2017ko SPKLko 101. artikuluan zehaztutako moduan kalkulatu da eta kontratuaren ezaugarrien koadroko **5. atalean** dago jasoa. Balio horrek barne hartzen ditu indarrean dauden laneko araudiak aplikatzetik eratorritako kostuak, zerbitzuak gauzatzeko kostuak, egitura-gastu orokorrak, industria-etekina eta kontratazio-organoak kontratua gauzatze aldera kontratistaren eskura jartzen dituen horniduretatik eratorritako etekina.

El valor estimado del contrato es el que recoge el **apartado 5** del Cuadro de Características del Contrato, calculado en la forma determinada en el artículo 101 de la LCSP 2017 y que en tal apartado se explicita, que incluye tanto los costes derivados de la aplicación de las normativas laborales vigentes, otros costes que se derivan de la ejecución material de los servicios, los gastos generales de estructura, el beneficio industrial y el derivado de los suministros necesarios para su ejecución que en su caso se pongan a disposición del contratista por el órgano de contratación.

6. klausula. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

Cláusula 6.- Presupuesto base de licitación

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, hau da, toki-erakundeko kontratazio-organoak kontratuaren arabera gehienez agindu dezakeen gastua, balio erantsiaren gaineko zerga barne (partida bereizi gisa dago jasoa, 2017ko SPKLko 102.1 artikuluari jarraikiz), kontratuaren ezaugarrien koadroko **4. atalean** dago jasoa. Aurrekontu horrek barne hartzen ditu kontratua gauzatzeko kostu zuzen eta

El presupuesto base de licitación que opera como límite máximo de gasto que en virtud del contrato puede comprometer el órgano de contratación competente en cada caso de esta Entidad Local, incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido, que se indica como partida independiente, conforme a lo señalado en el artículo 102.1 de la LCSP 2017, asciende a la cantidad expresada en el **apartado**

zeharkakoak eta bestelako behin-behineko kostuak; eta, horrez gain, kontratua gauzatuko duten langileen soldaten kostua kontratuaren prezio osoaren parte bada, erreferentziazko lan-hitzarmena oinarritzat hartuta kalkulatutako soldaten gutxi gorabeherako kostua adierazten du, banakatuta eta generoaren eta maila profesionalaren arabera bereizita.

4 del Cuadro de Características del Contrato, e incluye los costes directos e indirectos y otros eventuales gastos precisos para su ejecución, y además, cuando el coste de los salarios de las personas empleadas para su ejecución formen parte del precio total del contrato, indica de forma desglosada y con desagregación de género y categoría profesional los costes salariales estimados a partir del convenio laboral de referencia.

7. klausula. Kreditua

Cláusula 7.- Existencia de crédito

Kreditu nahikoa dago, kontratuaren ezaugarrien koadroko **4. atalean** jasotako lizitazioaren oinarrizko aurrekontuari dagokion zenbatekora arte. Koadroan daude zehaztuta urterokoak, aurrekontuaren erabilera eta kreditua finantzatuko duten erakundeak, dagozkien portzentajeekin.

Existe crédito suficiente hasta el importe del presupuesto base de licitación recogido en el **apartado 4 del** Cuadro de Características del Contrato distribuido en las anualidades que en el mismo se indican, y con cargo a las aplicaciones presupuestarias que en él se señalan, con la financiación de las entidades que aquél enumera en el porcentaje que determina.

8. klausula. Kontratua gauzatzeko epea eta luzapena

Cláusula 8.- Plazo de ejecución y prórroga

Kontratua gauzatzeko epe osoa eta, hala badagozkio, epe partzialak kontratuaren ezaugarrien koadroko **17. atalean** daude zehaztuta. Atal horrek dio epeak luzatu daitezkeela, baina horrek ez du esan nahi kontratua esleitzen zaion lizitatzaileak aurkeztutako eskaintzan ezarritako epe osoa eta lanerako programa onartzen denean zehaztutako epe partzialak bete behar ez dituenik.

Epe horiek kontatzen toki-erakundeak obrak edo lanak hasteko baimena ematen duenean eta zuinketa egiaztatzeko akta egiten denean hasi behar da.

El plazo total de ejecución del contrato, y, en su caso, los parciales figuran en el **apartado 17** del Cuadro de Características del Contrato, en el que se señala, en su caso, su posibilidad de prórroga, sin perjuicio del plazo total que determine la oferta presentada por el licitador que resulte adjudicatario y de los plazos parciales que se fijen con ocasión de la aprobación del programa de trabajo.

Los plazos indicados comenzarán a contarse a partir de la autorización para la iniciación de las obras o trabajos dada por la Entidad Local y de la expedición del acta de comprobación del replanteo.

Esleipendunak kontratua gauzatzeko epe orokorra eta epe partzialak bete behar ditu.

El contratista está obligado a cumplir el contrato dentro del plazo total fijado para la realización del mismo, así como de los plazos parciales señalados para su ejecución sucesiva.

9. klausula. Kontratazio-organoa

Cláusula 9.- Órgano de contratación

Toki-erakundearen izenean zer kontratazio-organok jardungo duen **kontratuaren ezaugarrien koadroko 1. atalean** dago zehaztua eta 2017ko SPKLko 61. artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian ezarritako eskumenak izango ditu.

El órgano de contratación, que actúa en nombre de la Entidad Local es el que se señala en el **apartado 1** del Cuadro de Características del Contrato, en virtud de las facultades que le confieren los artículos 61, la Disposición adicional segunda de la LCSP 2017.

Organo horrek kontratua esleitzeko ahalmena du eta, beraz, eskumen hauek ditu: kontratua interpretatzea, kontratua betetzerakoan sortzen diren zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratua iraungitzea eta iraungitzearen ondorioak zehaztea; hori, aplikatu behar den araudiaren arabera.

Dicho órgano tiene facultad para adjudicar el contrato y, en consecuencia, ostenta las prerrogativas de interpretarlo, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, con sujeción a la normativa aplicable.

Kontratazio-organoak horretarako adosten dituen akordioak (aurrez txosten juridikoa egin behar da) betearazleak izango dira berehala. Dena den, kontratistak akordioa inpugnatu dezake eskumena duen jurisdikzioaren aurrean.

Los acuerdos, previo informe jurídico, que a este respecto dicte serán inmediatamente ejecutivos, sin perjuicio del derecho del contratista a su impugnación ante la jurisdicción competente.

10. klausula. Kontratatzailearen profila

Cláusula 10.- Perfil de contratante

2017ko SPKLko 63. artikuluari jarraikiz, toki-erakundearen kontratuzko jarduerari buruzko informazioa gardena eta eskuragarria izan dadin ziurtatze aldera, kontratatzailearen profilaren bitartez haren kontratuzko jarduerari buruzko informazioa emango da, kontratu honi dagozkion iragarkiak, agiri hau, agiri teknikoa eta proiektua barne.

Conforme al artículo 63 de la LCSP 2017 y con el fin de asegurar la transparencia y el acceso público a la información relativa a la actividad contractual de esta Entidad Local, se facilita a través del Perfil de Contratante de la misma toda la información relativa a su actividad contractual, incluyendo los anuncios relativos al presente contrato, el presente pliego, el pliego técnico y el proyecto.

Kontratua esleitu aurretik, kontratuaren xedea zehatz-mehatz zehazten duen proiektua egin, berrikusi, onartu eta birplanteatu behar da. Proiektua toki-erakundean eskumena duen kontratazio-organoak onetsi behar du.

Con carácter previo a la adjudicación del contrato deberá haberse elaborado, supervisado, aprobado y replanteado el proyecto que defina con precisión el objeto del contrato, aprobación que corresponde al órgano de contratación competente de la Entidad Local.

Profilak informazio hau du: toki-erakundeko kontratazio-organoarekin harremanetan aritzeko behar den informazio orokorra, topaguneak, telefono- eta fax-zenbakiak, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, iragarkiak eta baldintzen agiriak eta egiten dituen kontratuei buruzko informazio berezia.

El Perfil incluye tanto la información de tipo general precisa para relacionarse con el órgano de contratación de la Entidad Local, como puntos de contacto, números de teléfono y de fax, dirección postal y dirección electrónica, informaciones, anuncios y pliegos de condiciones, así como la información particular relativa a los contratos que celebre.

Profila interesdun guztiek ikus dezakete, kontratuaren ezaugarrien koadroko **1. atalean** zehaztutako helbidean.

El perfil será accesible para todos los interesados desde la dirección que se señala en el **apartado 1** del Cuadro de Características del Contrato.

11. klausula. Obra-proiektua

Cláusula 11.- Proyecto de obras

Kontratua arautuko duten agiriak onartu aurretik, kontratuaren xedea zehatz-mehatz zehazten duen proiektua egin, berrikusi, onartu eta birplanteatu behar da. Proiektua toki-erakundean eskumena duen kontratazio-organoak onetsi behar du.

Con carácter previo a la aprobación de los pliegos que regirán el contrato deberá haberse elaborado, supervisado, aprobado y replanteado el proyecto que defina con precisión el objeto del contrato, aprobación que corresponde al órgano de contratación competente de la Entidad Local.

Proiektuaren edukia 2017ko SPKLko 233. artikuluan dago zehaztuta.

El proyecto deberá tener el contenido previsto en el artículo 233 de la LCSP 2017.

LIZITAZIOA ETA ESLEIPENA

LICITACION Y ADJUDICACIÓN

12. klausula. Ahalmena eta kaudimena

Cláusula 12.- Capacidad y solvencia

Ahalmena

Capacidad

Jarduteko gaitasun osoa duten Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek bakarrik egin ahal izango dituzte kontratuak sektore publikoarekin, betiere 2017ko SPKLko 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeko debekuren bat ez badute eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatu badituzte edo, legeak hala eskatzen duenean, behar bezala sailkatuta badaude.

Sólo podrán contratar con el sector público las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incursas en alguna prohibición de contratar de las señaladas en al artículo 71 de la LCSP 2017, y acrediten su solvencia económica y financiera y técnica o profesional o, en los casos en que sea exigible, o se encuentren debidamente clasificadas.

Kontratistek kontratuaren xede diren zerbitzuak eskaintzeko behar diren gaitasun enpresarial eta profesionalak eduki behar dituzte.

Los contratistas deberán contar, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de las prestaciones que contribuyan al objeto del contrato.

Pertsona juridikoak erakundearen sortze-estatutu edo -arauei jarraikiz dagozkien xede, helburu edo jarduera-esparruekin zerikusia duten kontratuen esleipendun bakarrik izan daitezke.

Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios.

Erkidegoko enpresei, Europako Esparru Ekonomikoari buruzko akordioa sinatu duten estatuetako enpresei eta erkidegotik kanpoko enpresei dagokienez, 2017ko SPKLko 68. eta 69. artikuluak bete behar dituzte.

En lo que respecta a las empresas comunitarias o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo y las empresas no comunitarias se estará a lo dispuesto en los artículos 68 y 69 de la LCSP 2017.

Sektore publikoarekin kontratuak egin ditzakete, halaber, horretarako eratzen diren aldi baterako enpresa-elkarteek. Kontratazio-mahaiak, kolusiorik badago, erabakiak hartzeko eskumena izango du, 2017ko SPKLko 69. artikuluari jarraikiz. Elkarteak ez dira zertan eskritura publikoan formalizatu kontratua haiei esleitu arte.

Podrán contratar con el sector público las uniones de empresarios que se constituyan temporalmente al efecto, sin perjuicio de las facultades de la Mesa de Contratación cuando existan indicios de colusión, conforme al artículo 69 de la LCSP 2017, sin que sea necesaria la formalización de las mismas en escritura pública hasta que se haya efectuado la adjudicación del contrato a su favor.

Eskaintza aldi baterako elkartuta aurkezten duten enpresaburuek betebehar solidarioa izango dute eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute. Ahaldun horrek kontratutik eratorritako eskubideak erabiltzeko eta eginkizunak betetzeko ahalorde askietsia eduki behar du, kontratua iraungitzen den arte. Dena den, enpresek zenbateko handiak kobratzeko eta

Los empresarios que concurran agrupados en uniones temporales quedarán obligados solidariamente y deberán nombrar un representante o apoderado único de la unión con poderes bastantes para ejercitar los derechos y cumplir las obligaciones que del contrato se deriven hasta la extinción del mismo, sin perjuicio de la existencia de poderes mancomunados que

ordaintzeko ahalorde mankomunatuak eduki ditzakete.

Aldi baterako elkartean bat eginda lehiatu nahi duten enpresaburuek elkartea osatzen duten enpresaburu guztien izen-abizenak eta partaidetza zehaztu behar dituzte. Horrez gain, kontratuaren esleipendun izanez gero aldi baterako elkartea eratuko dutelako konpromisoa hartu dutela adierazi behar dute. Enpresen aldi baterako elkarteen iraunaldia kontratuarena izango da, gutxienez.

puedan otorgar para cobros y pagos de cuantía significativa.

Los empresarios que deseen concurrir integrados en una unión temporal deberán indicar los nombres y circunstancias de los que la constituyan y la participación de cada uno, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios del contrato. La duración de las uniones temporales de empresarios será coincidente, al menos, con la del contrato hasta su extinción.

Kaudimena

Enpresaburuek egiaztatu behar dute kaudimen ekonomiko eta finantzario eta kaudimen profesional edo tekniko nahikoa dutela, 2017ko SPKLko 86., 87. eta 90. artikuluetan ezarritakoaren arabera; kaudimen horiek kontratuaren ezaugarrien koadroko **6. atalean** daude zehaztuta.

Behar den kaudimena egiaztatzeko, enpresaburuak beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak har ditzake oinarritzat, haiekin duen loturaren izaera juridikoa edozein dela. Hori, betiere, kontratuak irauten duen bitartean kaudimen eta baliabide horiek izango dituela egiaztatzen badu eta erakunde horiek kontratatzeko debekurik ez badute.

Halaber, aldi baterako elkarteetan bat eginda lehiatzen duten enpresaburuek elkarteaz kanpoko erakundeen ahalmena erabil dezakete.

Alde horretatik, beste erakunde batzuen ahalmenez baliatu nahi duten enpresek behar dituzten baliabideak eskura izango dituztela

Solvencia

Los empresarios deberán acreditar estar en posesión de las condiciones mínimas de solvencia económica y financiera y profesional o técnica de conformidad con lo previsto en los artículos 86, 87 y 90 de la LCSP 2017, que se señalan en el **apartado 6** del Cuadro de Características del Contrato.

Para acreditar la solvencia necesaria, el empresario podrá basarse en la solvencia y medios de otras entidades, independientemente de la naturaleza jurídica de los vínculos que tenga con ellas, siempre que demuestre que durante toda la duración de la ejecución del contrato dispondrá efectivamente de esa solvencia y medios, y la entidad a la que recurra no esté incursa en una prohibición de contratar.

En las mismas condiciones, los empresarios que concurran agrupados en las uniones temporales podrán recurrir a las capacidades de entidades ajenas a la unión temporal.

Para ello la empresa que desee recurrir a las capacidades de otras entidades, demostrará que va a disponer de los recursos necesarios mediante

egiaztatu behar dute. Gauzak horrela, eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu behar du, 2017ko SPKLko 150. artikuluan ezarritakoaren arabera, horretarako errekerimendua jaso ondoren.

la presentación a tal efecto del compromiso por escrito de dichas entidades, compromiso que se presentará por el licitador que hubiera presentado la mejor oferta de conformidad con lo dispuesto en el artículo 150 de la LCSP 2017, previo requerimiento a tal efecto.

Lizitatzaileak zuzenean egin beharreko lanak kontratuaren ezaugarrien koadroko **22. atalean** daude zehaztuta eta, beraz, eskaintzan prestazioa gauzatzeaz arduratuko direnen izen-abizenak eta lanbide-prestakuntza zehaztu behar dira. Alde horretatik, kontratua gauzatzeko giza baliabide eta baliabide material nahikoa jarriko dituela hitzemango du.

Cuando así se determine en el **apartado 22** del Cuadro de Características del Contrato, deberán ejecutarse directamente por el propio licitador los trabajos que en él se señalan y en la oferta se debe especificar, los nombres y la cualificación profesional del personal responsable de ejecutar la prestación, debiendo comprometerse a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato los medios personales o materiales suficientes para ello.

Kontratua gauzatzeko giza baliabide eta baliabide material nahikoa jartzeko konpromiso hori funtsezko betekizuntzat joko da eta, partzialki betetzen ez bada edo ez bada behar bezala betetzen, kontratua bertan behera utziko da edo zigorrak ezarriko dira.

Dicho compromiso de dedicación o adscripción de los medios personales o materiales suficientes para la ejecución del contrato tendrá carácter de obligación esencial a los efectos de ser considerado como causa de resolución del contrato o de imposición de penalidades por incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso.

Sailkapena

500.000,00 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuetan kontratatzeko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa egiaztatzeko nahikoa izango da kontratuaren xedeari dagokion eta kontratuaren pleguetan jasoko den talde eta azpitaldean enpresaria sailkatuta izatea. Kasu horietan enpresariak hurrengo bi bideetako edozein erabilita egiaztatuko ahalko du kaudimena: kontratuaren xedeari dagokion talde eta azpitaldearen sailkapenaren bidez edo lizitazio iragarkian edo gonbidapenean eta kontratuaren ezaugarrien koadroko **6. atalean** jasotako berariazko kaudimen baldintzen bidez.

Clasificación

Para los contratos de obras cuyo valor estimado sea inferior a 500.000 euros la clasificación del empresario en el grupo o subgrupo que en función del objeto del contrato corresponda, y que será recogido en los pliegos del contrato, acreditará su solvencia económica y financiera y solvencia técnica para contratar. En tales casos, el empresario podrá acreditar su solvencia indistintamente mediante su clasificación como contratista de obras en el grupo o subgrupo de clasificación correspondiente al contrato o bien acreditando el cumplimiento de los requisitos específicos de solvencia exigidos en el anuncio de licitación o en la invitación a participar en el procedimiento y detallados en el **apartado 6** del Cuadro de Características del Contrato.

13. klausula. Kontratua esleitzeko eta berdinketa hausteko irizpideak

Kontratua esleitzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan eta haztapena erlatiboa izango da, garrantzi handiena duenetik txikienera, kontratuaren ezaugarrien koadroko **9. atalean** zehaztu bezala.

Kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintzak edo gehiagok puntuazio bera badute, kontratuaren xedeari loturiko irizpideak aplikatuko dira, 2017ko SPKLko 147. artikuluari jarraikiz **9. atalean** adierazitakoak. Horrelako irizpiderik ez badago, berdinketa irizpide sozial hauek aplikatuz hautsiko da (irizpideak eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren bete behar dituzte enpresek):

- Enpresen langile-taldean desgaitasunak dituzten edo gizarteak baztertuta dauden langileen portzentajea handiagoa izatea. Enpresek portzentaje bera badute, desgaitasuna duten langile finko gehien edo gizarteratzeko hartutako langile gehien dituena gailenduko da.
- Enpresen langile-taldean aldi baterako kontratuen portzentajea txikiagoa izatea.
- Enpresen langile-taldean emakume-portzentajea handiagoa izatea.
- Irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketa ez bada hausten, zozketa egingo da.

Cláusula 13.- Criterios de adjudicación y desempate

Para la adjudicación del contrato se tendrán en cuenta los criterios de adjudicación del contrato con la ponderación relativa de los mismos, en su caso, el orden decreciente de importancia que se les atribuye en el **apartado 9** del Cuadro de Características del Contrato.

Cuando tras la aplicación de los criterios de adjudicación, se produzca un empate entre dos o más ofertas se aplicarán los criterios vinculados al objeto del contrato, que se señalen, en su caso, en el mencionado **apartado 9** conforme al artículo 147 de la LCSP 2017, y en su defecto, el empate se resolverá, mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas:

- Mayor porcentaje de trabajadores con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla de cada una de las empresas, primando en caso de igualdad, el mayor número de trabajadores fijos con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla.
- Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas.
- Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de cada una de las empresas.
- El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.

Berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko agiriak berdinketa gertatzen denean aurkeztu behar dituzte lizitatzaileek, ez lehenago.

La documentación acreditativa de los criterios de desempate será aportada por los licitadores en el momento en que se produzca el empate, y no con carácter previo.

14. klausula. Proposamenak aurkeztea

Cláusula 14.- Presentación de proposiciones

Proposamenak lizitazioa zuzentzen duten agiri eta dokumentuetan ezarritakoaren arabera aurkeztu behar dira. Aurkeztuz gero, enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen ditu klausula eta baldintza guztiak, salbuespenik gabe, eta baimena ematen die kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu-kideen operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Las proposiciones de los interesados deberán ajustarse a los pliegos y documentación que rigen la licitación, y su presentación supone la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna, así como la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en las listas oficiales de operadores económicos de un Estado miembro de la Unión Europea.

Proposamenak ezkutukoak izango dira eta hori ziurtatzeko behar diren neurriak jarriko dira, proposamenak ireki bitartean.

Las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones.

Lizitatzaile batek banakako proposamena aurkezten badu, ezin du aldi baterako elkarte baten proposamenik sinatu. Halaber, lizitatzaileak ezin dira aurkeztu aldi baterako elkarte bat baino gehiagorekin.

Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en unión temporal con otros si lo ha hecho individualmente o figurar en más de una unión temporal.

Lizitatzaile batek arau horiek urratzen baditu, ez da onartuko hark sinatutako proposamen bat ere.

La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas.

Proposamenean jasanarazi beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa jaso behar da, partida bereizi gisa.

En la proposición deberá indicarse, como partida independiente, el importe del Impuesto sobre el Valor Añadido que deba ser repercutido.

1. Bitartekoak

1.- *Medios*

Proposamenak sektore publikoko kontratazio-plataforman aurkeztuko dira.

La presentación de proposiciones se realizará **en la plataforma de contratación del sector público**

Proposamenak sektore publikoko kontratazio-plataforman aurkeztu beharko dira, SPKLren 347. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Las proposiciones deberán presentarse **en la plataforma de contratación del sector público**, conforme a lo previsto en el artículo **347 del LCSP**.

2. Agiriak eta dokumentazio osagarria eskuratzea

Toki-erakundeak kontratatzailearen profila medio (ezaugarrien koadroko 1. atala) jarriko ditu interesdunaren eskura agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria, bitarteko elektronikoen bidez, lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik; sarbidea librea, zuzena, erabatekoa eta doakoa izango da.

2017ko SPKLko 159.2 artikuluan zehaztutakoaren arabera, eskaintza aurkezteko behar den dokumentazio guztia bitarteko elektronikoen bidez egongo da eskura iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunetik.

2.- *Acceso a los pliegos y demás documentación complementaria*

El acceso a los pliegos y demás documentación complementaria se ofrecerá por esta Entidad Local a través del perfil de contratante (**apartado 1** del cuadro de características), por medios electrónicos, acceso que será libre, directo, completo y gratuito, y que se efectuará desde la fecha de la publicación del anuncio de licitación.

De acuerdo con lo señalado en el artículo 159.2 de la LCSP 2017 toda la documentación necesaria para la presentación de la oferta estará disponible por medios electrónicos desde el día de la publicación del anuncio en dicho perfil de contratante.

3. *Informazio osagarria*

Toki-erakundearen kontratazio-organoek, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez sei egun lehenago, lizitazio-prozeduran parte hartzea interesatzen zaien guztiei emango dizkie agirien gaineko informazio osagarria eta haiek eskatutako dokumentazio osagarri guztia. Betiere, interesdunek proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez 12 egun lehenago eskatu behar dute informazio hori.

Erantzunak lotesleak izango dira eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

3.- *Información adicional*

Los órganos de contratación de la Entidad Local proporcionarán a todos los interesados en el procedimiento de licitación, a más tardar 6 días antes de que finalice el plazo fijado para la presentación de ofertas, la información adicional sobre los pliegos y demás documentación complementaria que éstos soliciten, a condición de que la hubieren pedido al menos 12 días antes del transcurso del plazo de presentación de las proposiciones.

Las respuestas tendrán carácter vinculante y se publicarán en el perfil de contratante.

4. *Tokia eta epea*

4.- *Lugar y plazo*

Proposamenak sektore publikoko kontratazio-plataforman aurkeztuko dira, Kontratatzailearen Profilean argitaratutako lizitazio-iragarkian adierazitako epean.

Las proposiciones se presentarán en la plataforma de contratación del sector público en el plazo señalado en el anuncio de licitación publicado en el Perfil del Contratante.

5. *Konfidentzialtasuna*

5.- *Confidencialidad*

2017ko SPKLko 133. artikuluaren arabera, toki-erakundeak ez du ezagutzera emango enpresaburuek eskaintza aurkezterakoan konfidentzialtzat jo duten informazioa.

De acuerdo con el artículo 133 de la LCSP 2017 la entidad local no divulgará la información facilitada por los empresarios que éstos hayan designado como confidencial en el momento de presentar su oferta.

Konfidentzialak izango dira, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialak, eskaintzen isilpeko gaiak eta lizitazio-prozedura honetan edo hurrengoetan lehia desitxuratzeko erabil daitekeen gainerako informazio guztia.

El carácter de confidencial afecta, entre otros, a los secretos técnicos o comerciales, a los aspectos confidenciales de las ofertas y a cualesquiera otras informaciones cuyo contenido pueda ser utilizado para falsear la competencia, ya sea en ese procedimiento de licitación o en otros posteriores.

Kontratazio-organoari eta haren mendeko zerbitzuei informazioa isilpean gordetzeko dagokien betekizuna ezin da esleipendunaren eskaintzaren eduki osora hedatu.

El deber de confidencialidad del órgano de contratación, así como de sus servicios dependientes no podrá extenderse a todo el contenido de la oferta del adjudicatario.

Halaber, informazioa isilpean gordetzeko betekizunak ezin du eragotzi egindako kontratuetan konfidentzialak ez diren parteak ezagutzera ematea. Alde horretatik, betiere, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legean ezarritakoa beteko da.

El deber de confidencialidad tampoco podrá impedir la divulgación pública de partes no confidenciales de los contratos celebrados, respetando en todo caso lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

15. klausula. Proposamenen edukia

Cláusula 15.- Contenido de las proposiciones

Lizitatzaileek ondoren adierazten diren artxibo elektronikoetan aurkeztu beharko dute proposamena, lizitatzaileak edo ordezkatzen duen pertsonak sinatuta.

Los licitadores deberán presentar la proposición en los archivos electrónicos que luego se señalan, firmados por el licitador o persona que lo representa

Espainian kontratua egin nahi duten atzerriko enpresek dokumentazioaren gaztelaniazko edo euskarazko itzulpen ofizialak aurkeztu behar dituzte.

Las empresas extranjeras que contraten en España presentarán la documentación traducida de forma oficial al castellano o al euskera.

1. *A artxibo elektronikoa*

IZENBURUA: Dokumentazio administratiboa

A artxibo elektronikoak erantzukizunpeko adierazpena izango du, 1. eranskin gisa erantsi den kontrataziorako Europako dokumentu bakarraren inprimakira egokituko dena. Sinatuta eta dagokion identifikazioarekin egon beharko du, eta lizitatzaileak honako hau adierazi beharko du:

- Sozietatea baliozki eratuta dagoela; daukan helburu soziala kontuan hartuta, lizitazioan parte har dezakeela; eta adierazpena sinatu duenak proposamena aurkezteko eta sozietatearen izenean aritzeko eskumena duela.

- Sailkatua dagoela edo, hala badagokio, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela, agiriak Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatuaren arabera ezarritako moduan.

- Ez duela bere kasa eta ezta hedaduraz ere kontratatzeko debekurik, 2017ko SPKLko 71.3 artikuluaren arabera.

- Enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzea aukeratzen badu, 2017ko SPKLko 75. artikuluari jarraikiz, enpresa horiek erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztu behar dute, horrelakoetan jaso behar den informazio guztiarekin, Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatuaren arabera.

- Enpresak beste erakunde batzuen ahalmena erabiltzen badu, erakunde horien idatzizko

1.- *Archivo electrónico A*

TÍTULO: Documentación Administrativa

El Archivo electrónico A incluirá declaración responsable que se ajustará al formulario de DOCUMENTO EUROPEO ÚNICO DE CONTRATACIÓN que se adjunta como ANEXO 1, que deberá estar firmada y con la correspondiente identificación, en la que el licitador ponga de manifiesto:

- Que la sociedad está válidamente constituida y que conforme a su objeto social puede presentarse a la licitación, así como que el firmante de la declaración ostenta la debida representación para la presentación de la proposición y de aquella.

- Que cuenta con la correspondiente clasificación, en su caso, o que cumple los requisitos de solvencia económica, financiera y técnica o profesional exigidos, en las condiciones que establezca el pliego de conformidad con el formulario normalizado del documento europeo único de contratación.

- Que no está incursa en prohibición de contratar por sí misma ni por extensión como consecuencia de la aplicación del artículo 71.3 de la LCSP 2017.

- Cuando el empresario recurra a la solvencia y medios de otras empresas de conformidad con el artículo 75 de la LCSP 2017, cada una de ellas deberá presentar una declaración responsable en la que figure la información pertinente para estos casos con arreglo al formulario normalizado del documento europeo único de contratación.

- Cuando la empresa recurra a las capacidades de otras entidades, deberá presentar compromiso por

konpromisoa aurkeztu behar du, ahalmen hori erabili ahal izango duela egiaztatzeko.

- Enpresaburu batek baino gehiagok aldi baterako elkarte moduan lehiatzen badute, enpresek erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztu behar dute, horrelakoetan jaso behar den informazio guztiarekin, Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatuaren arabera. Horri aldi baterako elkartea eratzeko enpresaburuen konpromisoa gehitu behar zaio.

- Atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatu behar bada, erantzukizunpeko adierazpenaz gain, beste bat aurkeztu behar dute, non Espainiako maila guztietako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioari men egingo diotela azalduko duten, kontratua dela eta zuzenean edo zeharka sortzen diren intzidentzia guztiak ebazteko eta, hala badagokie, dagokien atzerriko jurisdikzioari uko egiten diotela adieraziko uten.

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak egiaztagiri guztiak edo batzuk aurkeztea eska diezaiekete hautagai edo lizitatzaileei, baldin eta adierazpenaren indarraldi edo fidagarritasunaren gaineko arrazoizko zalantzak badituzte, prozedura egoki gauzatzeko ezinbestekoa bada eta, betiere, kontratua esleitu baino lehen.

Dena den, enpresaburuak Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda badaude edo Europar Batasuneko estatu-kideren baten datu-base nazionalen batean ageri badira (adibidez: enpresaren espediente birtuala, agiriak gordetzeko sistema elektroniko bat eta aurrez sailkatzeko sistema bat), eta datu horiek aipaturiko organoak doan eskuratzeko modukoak badira, ez

escrito de dichas entidades para demostrar que va a disponer de tales recursos

- En todos los supuestos en que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, se aportará una declaración responsable por cada empresa participante en la que figurará la información requerida en estos casos en el formulario del documento europeo único de contratación. Adicionalmente se aportará el compromiso de constituir la unión temporal por parte de los empresarios que sean parte de la misma.

- Además de la declaración responsable las empresas extranjeras, en los casos en que el contrato vaya a ejecutarse en España, deberán aportar una declaración de sometimiento a la jurisdicción de los juzgados y tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante.

El órgano o la mesa de contratación podrán pedir a los candidatos o licitadores que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato.

No obstante, cuando el empresario esté inscrito en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y éstos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligado a presentar los documentos justificativos

dute erregistro eta datu-base horietan jasotako datuen egiaztagiri edo frogagiririk zertan aurkeztu.

Aurreko ataletan aipaturiko ahalmenari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko baldintzak bete behar dira hala eskaintza aurkezteko epea amaitzen denean nola kontratua burutzen denean.

Podrán no publicarse determinados datos relativos a la celebración del contrato cuando se considere, justificándose debidamente en el expediente, que la divulgación de esa información puede obstaculizar la aplicación de una norma, resultar contraria al interés público o perjudicar intereses comerciales legítimos de empresas públicas o privadas o la competencia leal entre ellas, o cuando se trate de contratos declarados secretos o reservados o cuya ejecución deba ir acompañada de medidas de seguridad especiales conforme a la legislación vigente, o cuando lo exija la protección de los intereses esenciales de la seguridad del Estado y así se haya declarado de conformidad con lo previsto en la letra c) del apartado 2 del artículo 19 de la LCSP 2017.

Horrelakoetan, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak aipaturiko Gardentasunaren eta Gobernantza Onaren Kontseiluari txostena egitea eskatu behar zaio, 2017ko SPKLko 154. artikuluari jarraiki.

En tal caso deberá recabarse la emisión de informe por el Consejo de Transparencia y Buen Gobierno a que se refiere la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno en los términos del artículo 154 de la LCSP 2017.

KONTRATUA GAUZATZEA

EJECUCIÓN DEL CONTRATO

25. klausula. Kontratuaren prezioa ordaintzea

Toki Erakundeak, dagokion hilabetearen hurrengo lehen hamar egunetan, denbora-epe horretan proiektuarekin bat etorriz gauzatutako obra jasoko duten ziurtagiriak egingo ditu hilero, Kontratuaren Ezaugarrien Taulako 17. apartatuan kontrakoa aurreikusi ezean, eta horien ordainketak konturako ordainketatzat hartuko dira amaierako neurketan egin daitezkeen zuzenketen eta aldaketen mende, baina horiek ordaintzeak ez du esan nahi, inola ere, jasotzen dituzten obrak onesten direnik eta horiei harrera ematen zaienik.

Hurrengo ordainketari begira egindako konturako ordainketen zenbateko metatua kontratuaren prezioaren ehuneko 90aren parekoa edo handiagoa denean, horren barruan onetsi litezkeen aldaketak ere sartuz, izapidetzen den ordainketa-espedientearekin batera, arauzkoa izanez gero, dagokion Kontu-hartzailetzak egindako komunikazioa aurkeztu beharko da, inbertsioa materialki egiaztatzeko eginkizunak burutuz harrera ematen zaionean dagokion laguntza eman ahal izateko.

2017ko SPKLko 210. artikuluko 4. atalean kontratuaren likidazioaren inguruan eta 2017ko SPKLko 243. artikuluko 1. atalean kontratuari harrera ematearen inguruan ezarritakoaren kontra joan gabe, Toki Erakundeak onetsi egin beharko ditu proiektuan eta gauzatutako obraren kontratuan xedatutakoarekin bat datorrela egiaztatzen duten agiriak horiek egin eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan, 23. atalean adierazitakoa izan ezik, betiere hartzekodunarentzat nabarmen gehiegizkoa ez bada, merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurkako neurriei buruzko abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 9. artikuluak dioenaren ildotik.

Cláusula 25.- Pago del precio del contrato

La Entidad Local expedirá mensualmente, en los primeros diez días siguientes al mes al que correspondan, certificaciones que comprendan la obra ejecutada conforme a proyecto durante dicho período de tiempo, cuyos abonos tienen el concepto de pagos a cuenta sujetos a las rectificaciones y variaciones que se produzcan en la medición final y sin suponer en forma alguna, aprobación y recepción de las obras que comprenden.

Cuando el importe acumulado de los abonos a cuenta sea igual o superior con motivo del siguiente pago al 90 por ciento del precio del contrato incluidas, en su caso, las modificaciones aprobadas, al expediente de pago que se tramite habrá de acompañarse, cuando resulte preceptiva, la comunicación efectuada a la Intervención correspondiente para su eventual asistencia a la recepción en el ejercicio de sus funciones de comprobación material de la inversión.

Sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210 de la LCSP 2017 en relación a la liquidación del contrato y en el apartado 1 del artículo 243 de la LCSP 2017 sobre recepción del contrato, la Entidad Local deberá aprobar los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el proyecto y el contrato de la obra ejecutada dentro de los treinta días siguientes a su expedición salvo lo señalado en el apartado 23, siempre que no sea manifiestamente abusivo para el acreedor en el sentido del artículo 9 de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

Toki Erakundeak prezio hori obra-ziurtagiriak onesten direnetik hurrengo hogeita hamar egunen barruan ordaintzeko obligazioa izango du, betiere dagokion faktura epe horren barruan garaiz eta egoki aurkeztu baldin badu.

La Entidad Local tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de los documentos señalados en el apartado anterior, siempre y cuando haya presentado la correspondiente factura en tiempo y forma en dicho plazo.

Ikusten bada aurkeztutako faktura horrek ez duela betetzen eska daitekeen betebeharren bat, hori zuzendu dadila eskatuko da, eta adierazitako epea ez da zenbatzen hasiko zuzenketa gauzatu arte.

Si se observase que la factura presentada adolece de algún requisito exigible, se solicitará su subsanación sin que empiece a computarse el plazo señalado hasta su corrección.

Faktura elektronikoari buruzko indarreko araudian ezarritako baldintzei jarraiki, faktura hori dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko hogeita hamar eguneko epea betetzen ez badu kontratistak, interesen sortzapena ez da kontatzen hasiko harik eta faktura egoki aurkezten denetik hogeita hamar egun igaro arte, Administrazioak bere adostasuna eman gabe –hala egokituz gero– eta dagokion ordainketa gauzatu gabe.

Si el contratista incumpliera el plazo de treinta días para presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, el devengo de intereses no se iniciará hasta transcurridos treinta días desde la fecha de la correcta presentación de la factura, sin que la Administración haya aprobado la conformidad, si procede, y efectuado el correspondiente abono.

2017ko SPKLko hogeita hamahirugarren Xedapen gehigarrian adierazitakoarekin bat etorriz, kontratistak faktura hori dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko obligazioa izango du, horren izapideak egitea egokitzen zaion administrazio-organoari edo unitateari bidali ahal izan diezaioten, kontabilitate publikoaren alorrean eskumena duen administrazio-organoaren identifikazioa, kontratazio-organoaren identifikazioa eta hartzailearena jasotzen duen Kontratuaren Ezaugarrien Taulako 23. atalean adierazitako baldintzetan, eta halaxe agertu beharko du dagokion fakturan.

De acuerdo con lo señalado en la Disposición adicional trigésima tercera de la LCSP 2017 el contratista tendrá la obligación de presentar la factura ante el correspondiente registro administrativo a efectos de su remisión al órgano administrativo o unidad a quien corresponda la tramitación de la misma en los términos señalados en el **apartado 18** del Cuadro de Características del Contrato que recoge la identificación del órgano administrativo con competencias en materia de contabilidad pública, la identificación del órgano de contratación y del destinatario, que deberán constar en la factura correspondiente.

Faktura Elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legean finkatutako kasuetan, formatu elektronikoan aurkeztu beharko da. Kasu horietan, faktura Sarrera Puntu Orokorrean aurkezteak administrazio-erregistro batean aurkeztearen balio berbera du.

En los supuestos fijados en la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de Impulso a la Factura Electrónica y Creación del Registro Contable de Facturas del Sector Público deberá presentarse en formato electrónico. En tales supuestos la presentación de la factura en el Punto General de Acceso equivale a la presentación en un registro administrativo.

Ordainketan atzeratutako denbora lau hilabetetik gorakoa baldin bada, kontratistak, hala egokituz gero, kontratua betetzea esekita utzi ahal izango du, eta xehetasun hori hilabete lehenagotik jakinarazi beharko dio Administrazioari, Lege honetan ezarritako baldintzen arabera esekita uzte horrek eragin ditzakeen eskubideak aitortzeari begira.

Si la demora en el pago fuese superior a cuatro meses, el contratista podrá proceder, en su caso, a la suspensión del cumplimiento del contrato, debiendo comunicar a la Administración, con un mes de antelación, tal circunstancia, a efectos del reconocimiento de los derechos que puedan derivarse de dicha suspensión, en los términos establecidos en esta Ley.

Administrazioaren berandutze hori sei hilabetetik gorakoa baldin bada, berriz, kontratistak eskubidea izango du, halaber, kontratua ezeztatzeko eta horrek ekartzen dizkion kalteen ordaina jasotzeko.

Si la demora de la Administración fuese superior a seis meses, el contratista tendrá derecho, asimismo, a resolver el contrato y al resarcimiento de los perjuicios que como consecuencia de ello se le originen.

Obren ordainketa kontratuaren esleipenean erabakitako urtekoen arabera eta obra horien exekuzio-erritmoaren arabera egingo da, esleipendunak aurkeztu eta kontratazio-organoak onetsi duen Lan Programarekin bat etorriz.

El abono de las obras se realizará de acuerdo a las anualidades determinadas en la adjudicación del contrato y del ritmo de ejecución de las mismas conforme al Programa de Trabajo presentado por el adjudicatario y aprobado por el órgano de contratación.

Lanak kontratuan adierazitako epean edo epeetan egiteko beharrezkoa dena baino azkarrago egin ahal izango ditu kontratistak, Obrako Zuzendaritzak horrela egitea desegokia edo ez-gomendagarria dela jo ezean, baina horrek ez du esan nahiko, egindakoaren edo luzatutako ziurtagirien zenbatekoa edozein izanik ere, dagokion urtekoan izendatutakoa baino zenbateko handiagoa jasotzeko eskubidea duenik urtero.

El contratista podrá desarrollar los trabajos con mayor celeridad que la necesaria para ejecutar las obras en el plazo o plazos contractuales, salvo se estimase no aconsejable inconveniente por la Dirección de las obras, pero ello no determinará que tenga derecho a percibir en cada año, cualquiera que sea el importe de lo ejecutado o de las certificaciones expedidas, mayor cantidad que la consignada en la anualidad correspondiente.

Zerga arloko arauetan eta Gizarte Segurantzarenetan ezarritakoaren kontra joan gabe, kontratua burutzeagatik bidezkoak diren konturako ordainketak ondorengo kasu hauetan bakarrik bahitu ahal izango dira:

Sin perjuicio de lo establecido en las normas tributarias y de la Seguridad Social, los abonos a cuenta que procedan por la ejecución del contrato solo podrán ser embargados en los siguientes supuestos:

a) Kontratistaren langileek kontratua burutzean sortutako ordainsariak eta horietatik eratortzen diren gizarte-segurantzako kuotak ordaintzeko.

a) Para el pago de los salarios devengados por el personal del contratista en la ejecución del contrato y de las cuotas sociales derivadas de los mismos.

b) Kontratua burutzearekin loturik kontratistak azpikontratistekin eta hornitzaileekin adostutako obligazioak ordaintzeko (7). 24. klausula. Prezioak berrikustea

b) Para el pago de las obligaciones contraídas por el contratista con los subcontratistas y suministradores referidas a la ejecución del contrato.

26. klausula. Prezioak berrikustea.

Cláusula 26.- Revisión de precios.

Kontratu honetan ez da prezio-berrikuspenik aurreikusten.

En el presente contrato, no se prevé revisión de precios.

27. klausula. Fiskalitatearekin, genero-berdintasunarekin, ingurumena babestearekin, enplegu eta lan-baldintzekin eta desgaitasuna duten pertsonen ehuneko jakin bat kontratatzearekin loturiko obligazioak

Cláusula 27.- Obligaciones relativas a la fiscalidad, igualdad de género, protección del medio ambiente, empleo y condiciones laborales y de contratar a un porcentaje específico de personas con discapacidad

Kontratista behartua dago, lan eta gizarte-segurantzaren alorreko nahiz minusbaliatuak gizarteratzeko eta lan-arriskuen prebentziorako indarrean dagoen araudia betetzera, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean xedatutakoarekin bat etorriz, baita hori garatzen duten gainerako arauak ere.

El contratista está obligado al cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral, de seguridad social, de integración social de minusválidos y de prevención de riesgos laborales, conforme a lo dispuesto en la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, sobre Prevención de Riesgos Laborales, y sus normas reglamentarias y de desarrollo.

Baldintza-orri hauen 2. Eranskin gisa doan proposamen ekonomikoaren ereduan berariaz agerraraziko da beren eskaintzetan kontuan hartu dituztela fiskalitatearekin, ingurumenaren babesarekin, lana babestearekin, genero-berdintasunarekin, lan-baldintzekin, laneko arriskuen prebentzioarekin eta desgaitasuna duten pertsonak gizarteratu eta laneratzearekin loturik indarrean dauden xedapenek eskatutako betebeharrak, eta halaber, desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko berezi bat kontratatzeko obligazioa, eta dena den, ezohiko balioak edo neurriz kanpokoak jasotzen dituzten eskaintzak egiaztatzeari buruz 2017ko SPKLko

En el modelo de proposición económica que figura como **Anexo 2** al presente pliego se hará manifestación expresa que se han tenido en cuenta en sus ofertas las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de fiscalidad, protección del medio ambiente, protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción socio laboral de las personas con discapacidad, y a la obligación de contratar a un número o porcentaje especifico de personas con discapacidad, y protección del medio ambiente, sin perjuicio de la aplicación de lo dispuesto en el artículo 149 de la LCSP 2017sobre

149. artikuluan xedatutakoa aplikatu ahal izango da.

Lizitatzaileek informazio egokia erdietsi ahal izango dute fiskalitatearekin eta ingurumenaren babesarekin loturiko obligazioei buruz, enplegu-babesaren, lan-baldintzen eta laneko arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dauden xedapenei buruz eta, halaber, lana babestearekin, genero-berdintasunarekin, lan-baldintzekin eta laneko arriskuen prebentzioarekin nola desgaitasuna duten pertsonak gizarteratu eta laneratzearekin loturik indarrean dauden xedapenei buruz, baita desgaitasunen bat duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharrari buruz ere; obligazio horiek obran egindako lanei edota kontratua burutu bitartean eskainitako zerbitzuei aplikatuko zaizkie, Kontratuaren Ezaugarrien Taulako 15. atalean adierazitako erakundeetan.

Administrazio kontratatzaileak une oro eskatu ahal izango dio enpresa kontratistari egiaztatu dezala aipatutako baldintza horiek betetzen dituela.

verificación de las ofertas que incluyan valores anormales o desproporcionados.

Los licitadores podrán obtener la información pertinente sobre las obligaciones relativas a la fiscalidad, a la protección del medio ambiente, y a las disposiciones vigentes en materia de protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales, y a las disposiciones vigentes en materia de protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales e inserción socio laboral de las personas con discapacidad, y a la obligación de contratar a un número o porcentaje específico de personas con discapacidad que serán aplicables a los trabajos efectuados en la obra o a los servicios prestados durante la ejecución del contrato en los organismos que se señalan en **apartado 15** del Cuadro de Características del Contrato.

La Administración contratante podrá en todo momento exigir de la empresa contratista, la acreditación del cumplimiento de las condiciones señaladas.

28. klausula. Exekuzio-baldintza berezia

Kontratua burutzeko baldintza berezi batzuk finkatu dira, Kontratuaren Ezaugarrien Taulako **16. atalean** jasoak, eta horiek ez betetzeak zigor batzuk ezartzea eragingo du, atal horretan berariaz ezartzen direnak izan ezik, izan ere, horiei kontratu arloko funtsezko betebeharren izaera ematen baitzaie kontratua ezeztatzeko arrazoitzat hartu ahal izateari begira, 2017ko SPKLko 211. artikuluaren f) letrako obligazio nagusiaren izaera edukitzeagatik, eta halaber, lege-hauste larritzat jotzen direnak, 2017ko SPKLko 71. artikuluko 2. atalaren c) letran ezarritako ondorioei begira.

Cláusula 28.- Condiciones especiales de ejecución

Se establecen las condiciones especiales de ejecución del contrato, que en su caso figuran en el **apartado 16** del Cuadro de Características del Contrato, el incumplimiento de las cuales dará lugar a la imposición de penalidades, salvo las que se determinen expresamente en tal apartado a las que se les confiere el carácter de obligaciones contractuales esenciales a los efectos de su consideración como causa de resolución del contrato por tener carácter de obligación principal letra f) del artículo 211 de la LCSP 2017 y las que se tipifiquen como infracción grave a los efectos establecidos en la letra c) del apartado 2 del artículo 71 de la LCSP 2017.

Administrazio kontratatzaileak une oro eskatu ahal izango dio enpresa kontratistari egiaztatu dezala aipatutako baldintza horiek betetzen dituela.

La Administración contratante podrá en todo momento exigir de la empresa contratista, la acreditación del cumplimiento de las condiciones señaladas.

29. klausula. Azpikontratazioa

Cláusula 29.- Subcontratación

Kontratistak hirugarrengoekin hitzartu ahal izango du prestazio hori partzialki egitea, Kontratuaren Ezaugarrien Taulako **22. atalean** adierazitakoarekin bat etorriz, prestazio hori edo horren zati bat zuzenean lehenak egin behar duenean izan ezik.

El contratista podrá concertar con terceros la realización parcial de la prestación con sujeción a lo señalado en el **apartado 22** del Cuadro de Características del Contrato, salvo que la prestación o parte de la misma haya de ser ejecutada directamente por el primero.

Kontratazio-organoak **22. atalean** ezarri ahal izango du eginkizun kritiko jakin batzuk azpikontratatzea ezinezkoa izatea, eta halakoetan, zuzenean burutu beharko ditu kontratista nagusiak. Eginkizun kritiko horiek zehazteari begira, horiei buruzko justifikazio bat jaso beharko da kontratazio-espedientean.

El órgano de contratación podrá establecer en el **apartado 22** que determinadas tareas críticas no puedan ser objeto de subcontratación, debiendo ser estas ejecutadas directamente por el contratista principal. La determinación de las tareas críticas deberá ser objeto de justificación en el expediente de contratación.

Azpikontratazioa mugatzeak ez du, inola ere, lehiakortasuna benetan murriztu dadila eragingo.

En ningún caso la limitación de la subcontratación podrá suponer que se produzca una restricción efectiva de la competencia.

Azpikontratuak egiten badira, ondorengo baldintzak bete beharraren mende geratuko dira

La celebración de los subcontratos estará sometida al cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) **22. atalean** horrela aurreikusiz gero, lizitatzaileek azpikontratatzea aurreikusten duten kontratuaren zatia adierazi beharko dute beren eskaintzetan, baita enpresaren izena edo ezaugarriak ere, lan hori egitea eskatuko zaien azpikontratisten kaudimen profesionalari edo teknikoari buruzko aipamenen bidez zehaztua.

a) Si así se prevé en el **apartado 22** los licitadores deberán indicar en la oferta la parte del contrato que tengan previsto subcontratar, señalando su importe, y el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica, de los subcontratistas a los que se vaya a encomendar su realización.

b) Kontratistak idatziz jakinarazi behar dio kontratazio-organoari, kontratua esleitu ondoren eta, beranduenez, kontratua gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia eta azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak edo legezko ordezkaria/k zehaztu beharko ditu, eta behar hainbat justifikatu beharko du hark baduela horretarako nahikoa gaitasun, eta egiaztatu egin beharko du hark ere ez duela kontratatzeko inolako debekurik.

b) El contratista debe comunicar por escrito, tras la adjudicación del contrato y, a más tardar, cuando inicie la ejecución de éste, al órgano de contratación la intención de celebrar los subcontratos, señalando la parte de la prestación que se pretende subcontratar y la identidad, datos de contacto y representante o representantes legales del subcontratista, y justificando suficientemente la aptitud de este y acreditando que el mismo no se encuentra incurso en prohibición de contratar.

Kontratista nagusiak kontratazio-organoari idatziz jakinarazi beharko dio kontratu nagusia burutzen den epearen barruan informazio horrek izan dezakeen edozein aldaketa, eta halaber, azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia eman.

El contratista principal deberá notificar por escrito al órgano de contratación cualquier modificación que sufra esta información durante la ejecución del contrato principal, y toda la información necesaria sobre los nuevos subcontratistas.

Azpikontratistak azpikontratazioaren xede den kontratuaren zatia egiteko sailkapen egokia edukiz gero, xehetasun hori jakinaraztea nahikoa izango da horretarako gaitasuna duela egiaztatzeko.

En el caso que el subcontratista tuviera la clasificación adecuada para realizar la parte del contrato objeto de la subcontratación, la comunicación de esta circunstancia será suficiente para acreditar la aptitud del mismo.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua gauzatu eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta kontratu hori larrialdi-egoera bati aurre egiteko beharrezkoa bada edo premiazko neurriak hartzea eskatzen badu, eta horrela behar hainbat justifikatzen bada.

La acreditación de la aptitud del subcontratista podrá realizarse inmediatamente después de la celebración del subcontrato si esta es necesaria para atender a una situación de emergencia o que exija la adopción de medidas urgentes y así se justifica suficientemente.

Eskaintzan adierazitakora egokitzen ez diren azpikontratuak, bertan aipatutako izen-zerrendetan agertzen ez diren beste enpresaburu batzuekin egin direlako edo bertan adierazitako prestazioaren zatiak ez diren beste batzuei buruzkoak direlako, ezingo dira egin, harik eta jakinarazpen hori egiten denetik eta haien gaitasunari buruzko eta kontratatzeko debeku-ezari buruzko justifikazioak aurkezten direnetik hogei eguneko epea igaro arte, aldez aurretik horiek berariaz baimenduta egon ezean, betiere Administrazioko Toki Erakundeak epe horren barruan haien aurkako jarrera jakinarazi ez badu.

Los subcontratos que no se ajusten a lo indicado en la oferta, por celebrarse con empresarios distintos de los indicados nominativamente en la misma o por referirse a partes de la prestación diferentes a las señaladas en ella, no podrán celebrarse hasta que transcurran veinte días desde que se hubiese cursado la notificación y aportado las justificaciones sobre su capacidad y ausencia de prohibición para contratar, salvo que con anterioridad hubiesen sido autorizados expresamente, siempre que la Entidad Local Administración no hubiese notificado dentro de este plazo su oposición a los mismos. Este

Erregimen hori, halaber, aplikagarri izango da baldin eta azpikontratistak beren profil profesionalaren deskribapenaren bitartez identifikatuta ageri badira eskaintzan.

régimen será igualmente aplicable si los subcontratistas hubiesen sido identificados en la oferta mediante la descripción de su perfil profesional.

Kontratistaren erantzukizunpean, azpikontratuak gauzatu ahal izango dira, hogei eguneko epea igarotzen utzi beharrik gabe, baldin eta larrialdi-egoera bati aurre egiteko beharrezkoa bada kontratu horiek egitea, edo premiazko neurriak hartzea eskatzen badute eta horrela behar hainbat justifikatzen bada.

Bajo la responsabilidad del contratista, los subcontratos podrán concluirse sin necesidad de dejar transcurrir el plazo de veinte días si su celebración es necesaria para atender a una situación de emergencia o que exija la adopción de medidas urgentes y así se justifica suficientemente.

Azpikontratazioari ekiteko baldintza horiek ez betetzeak, eta halaber, azpikontratistaren gaitasuna edo larrialdi-egoera eragin duten inguruabarrak edo azpikontratazioa premiazkoa bihurtzen duten xehetasunak ez egiaztatzeak, SPKLan aurreikusitakoez gain, eta kontratua gauzatzeak dituen eraginen arabera, ondorengo ondorio hauetakoren bat izango dute, baldin eta Kontratuaren Ezaugarrien Taulako **24. atalean** horrela aurreikusi bada:

La infracción de tales condiciones para proceder a la subcontratación, así como la falta de acreditación de la aptitud del subcontratista o de las circunstancias determinantes de la situación de emergencia o de las que hacen urgente la subcontratación, tendrá, entre otras previstas la LCSP, y en función de la repercusión en la ejecución del contrato, alguna de las siguientes consecuencias, cuando así se hubiera previsto el **apartado 24** del Cuadro de Características del Contrato:

a) Kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren 100eko 50erainoko zigorra ezarriko zaio.

a) La imposición al contratista de una penalidad de hasta un 50 por 100 del importe del subcontrato.

b) Kontratua ezeztatuta geratuko da, betiere 2017ko SPKLko 211. artikuluko 1 atalaren f) letraren bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.

b) La resolución del contrato, siempre y cuando se cumplan los requisitos establecidos en el segundo párrafo de la letra f) del apartado 1 del artículo 211 de la LCSP 2017.

Azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean bakarrik egongo dira behartuta, eta kontratista nagusi horrek, beraz, bere gain hartuko du Administrazioaren aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa, administrazio-baldintza partikularren orrietara eta kontratuaren baldintzetara hertsiki lotuz, eta horrez gain, ingurumen, gizarte edo lan alorrean dituzten obligazioak bete beharko dituzte.

Los subcontratistas quedarán obligados solo ante el contratista principal que asumirá, por tanto, la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente a la Administración, con arreglo estricto a los pliegos de cláusulas administrativas particulares y a los términos del contrato, incluido el cumplimiento de las obligaciones en materia medioambiental, social o laboral.

Administrazioak, kontratistak egin beharrekoak diren jakinarazpenekin bat etorriz egiten diren azpikontratuen berri jakiteak, edo izaera sekretua edo erreserbatua duten kontratuetan baimena emateak, edo horiek gauzatzeko segurtasun-neurri bereziak hartu behar izateak ez du ezertan aldatuko kontratista nagusiak bere gain hartua duen erabateko erantzukizuna.

El conocimiento que tenga la Administración de los subcontratos celebrados en virtud de las comunicaciones que el contratista deba realizar, o la autorización que otorgue en los contratos de carácter secreto o reservado, o en aquellos cuya ejecución deba ir acompañada de medidas de seguridad especiales, no alterarán la responsabilidad exclusiva del contratista principal.

Kontratistak ezingo du inola ere kontratuaren zatiren bat gauzatu dadila hitzartu ordenamendu juridikoarekin bat etorriz kontratatzeko gaitasunik ez duten pertsonekin, edo 2017ko SPKLko 71. artikuluaren kasuetako batean aurkitzen direnekin.

En ningún caso podrá concertarse por el contratista la ejecución parcial del contrato con personas inhabilitadas para contratar de acuerdo con el ordenamiento jurídico o comprendidas en alguno de los supuestos del artículo 71 de la LCSP 2017

Kontratistak azpikontratatuak izan diren langileen ordezkariei jakinarazi egin beharko die, lan arloko legeriarekin bat etorriz.

El contratista deberá informar a los representantes de los trabajadores de la subcontratación, de acuerdo con la legislación laboral.

2017ko SPKLko 215etik 217ra bitarteko artikuluek aipagai dituzten hornitzaileekin eta azpikontratistekin gauzatutako hornidura-kontratuek eta azpikontratuek, edonola ere, izaera pribatua edukiko dute.

Los subcontratos y los contratos de suministro concluidos con suministradores y subcontratistas a que se refieren los artículos 215 a 217 de la LCSP 2017 tendrán en todo caso naturaleza privada.

Azpikontratistek ez dute inola ere Toki Erakunde kontratatzailearen aurrean zuzenean jarduterik izango, kontratu nagusia eta azpikontratua gauzatzearen ondorioz kontratistak haiekin hitzartutako obligazioak direla eta.

Los subcontratistas no tendrán en ningún caso acción directa frente a la Entidad Local contratante por las obligaciones contraídas con ellos por el contratista como consecuencia de la ejecución del contrato principal y de los subcontratos.

30. klausula. Zigorrak kontratuko obligazioak ez betetzeagatik

Cláusula 30.- Penalidades por incumplimiento de obligaciones contractuales

Kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeak edo 2017ko SPKLko 76. artikuluko 2. atalarekin eta 2017ko SPKLko 202. artikuluko 1 atalarekin bat etorriz ezarri diren kontratuaren exekuzio-baldintza bereziak edo konpromisoak ez betetzeak Kontratuaren Ezaugarrien Taulako **24.**

El cumplimiento defectuoso de la prestación objeto del contrato o el incumplimiento de los compromisos o de las condiciones especiales de ejecución del contrato que se hubiesen establecido conforme al apartado 2 del artículo 76 de la LCSP 2017 y al apartado 1 del artículo 202

atalean aurreikusitako zigorrak ezartzea eragingo du.

de la LCSP 2017 darán lugar a la imposición de las penalidades previstas en el **apartado 24** del Cuadro de Características del Contrato.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren exekuzioaren zati bat betetzen ez badu, Toki Erakundeak, kasuaren xehetasunak kontuan izanik, kontratua ezeztatzea edo aipatutako **24. atal** horretan aurreikusitako zigorrak ezartzea erabaki ahal izango du.

Si el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido parcialmente la ejecución del contrato, la Entidad Local podrá optar, atendidas las circunstancias del caso, por su resolución o por la imposición de las penalidades previstas en el citado **apartado 24.**

Esleipendunak lanak egiteko ezarri den epearen barruan bete beharko du kontratua, eta era berean, ondoz ondoko exekuziorako adierazitako epe partzialak ere bete beharko ditu. Kontratista berandutze-egoeran dagoela jotzeko, ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurretik ohartarazpena egitea.

El contratista está obligado a cumplir el contrato dentro del plazo total fijado para la realización del mismo, así como de los plazos parciales señalados para su ejecución sucesiva. La constitución en mora del contratista no precisará intimación previa por parte de la Administración.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzan erortzen bada epe osoa betetzeari dagokionez, Toki Erakundeak, kasuaren xehetasunak kontuan izanik, kontratua ezeztatzea edo eguneko zigor batzuk ezartzea erabaki ahal izango du, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,60 euroko proportzioan, BEZ kanpo utziz, **24. atalean** beste batzuk aurreikusi ezean, kontratuak dituen ezaugarri bereziak kontuan izanik, hori egoki gauzatu ahal izateko eta espedientean horrela justifikatzeko.

Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, la Entidad Local podrá optar, atendidas las circunstancias del caso, por la resolución del contrato o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 0,60 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato, IVA excluido, salvo que el **apartado 24** prevea otras, atendiendo a las especiales características del contrato, para su correcta ejecución y así se justifique en el expediente.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratu-prezioaren 100eko 5aren multiploren batera iristen diren bakoitzean, BEZ kanpo, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta kontratua eskaintzen jarraitu dezatela erabakitzeko.

Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, IVA excluido, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.

Toki Erakundeak ahalmen berberak izango ditu kontratistak epe partzialak ez betetzeari dagokionez, baldin eta aipatutako **27. atalean** horrela aurreikusten bada, edo epe horiek betetzeko orduan izandako berandutzagatik epe osoa betetzea ezinezkoa izango zaiela susma badaiteke arrazoi osoz.

La Entidad Local tendrá las mismas facultades respecto al incumplimiento por parte del contratista de los plazos parciales, cuando se hubiese previsto en el citado **apartado 27** o cuando la demora en el cumplimiento de aquellos haga presumir razonablemente la imposibilidad de cumplir el plazo total.

Kontratua zati batean betetzen ez bada, edo kontratua behar bezala betetzen ez bada, edo exekuzioa behar bezala betetzen ez bada, edo zigorra ezarrita ez badago, edo toki-erakundeari eragindako kalteak estaltzen ez baditu, toki-erakundeak kalte-galerengatiko kalte-ordaina eskatuko dio kontratistari.

En los supuestos de incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso o de demora en la ejecución en que no esté prevista penalidad o en que estándolo la misma no cubriera los daños causados a la Entidad Local, esta exigirá al contratista la indemnización por daños y perjuicios.

Kontratazio-organoak hala erabakitzen duenean ezarriko dira zigorrak, kontratuaren arduradunak –horrelakorik izendatu baldin bada– proposatu ondoren, eta berehala bete beharrekoak izango dira. Ordainketa osoaren edo partzialaren kontzeptupean kontratistari ordaindu behar zaizkion zenbatekoetatik kenduz gauzatuko da, edo bestela, hala egokituz gero, jarri ahal izan den bermearen gainean, aipatutako ordainketa horietatik kentzea ezinezkoa denean.

Las penalidades se impondrán por acuerdo del órgano de contratación, adoptado a propuesta del responsable del contrato si se hubiese designado, que será inmediatamente ejecutivo, y se harán efectivas mediante deducción de las cantidades que, en concepto de pago total o parcial, deban abonarse al contratista o sobre la garantía que, en su caso, se hubiese constituido, cuando no puedan deducirse de los mencionados pagos.

31. klausula. Kontratua lagatzea

Cláusula 31.- Cesión del contrato

Kontratuaren lagapena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 214. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira baimentzen da.

Cesión del contrato: Se permite siempre que se den las condiciones establecidas en el artículo 214 de la Ley de Contratos del Sector Público.

.

32. klausula. Kontratistari eska dakizkiokeen obligazio, gastu eta zergak

Cláusula 32.- Obligaciones, gastos e impuestos exigibles al contratista

Kontratua gauzatzeko gastuak kontratistaren kontura izango dira, eskritura publiko batean jasota geratuz gero.

Son de cuenta del contratista los gastos de formalización del contrato en el supuesto de elevación a escritura pública.

Halaber, kontratua betetzeko enpresak egin behar dituen gastu guztiak ordaintzera behartuta egongo

Asimismo vendrá obligado a satisfacer todos los gastos que la empresa deba realizar para el

da, hala nola gastu orokorrak, finantza-gastuak, aseguruak, garraioak eta lekualdaketak, materialak, instalazioak, beren ardurapeko langileen ordainsariak, egiaztapen eta entsegukoak, tasak eta era guztietako zergak, BEZ, jarduera hori egiteagatik legokiokeen zerga eta epealdi horren barruan kontratua gauzatzetik erator litekeen beste edozein zerga, eta ezingo dira kontu-sail independente gisa erregistratu.

cumplimiento del contrato, como son los generales, financieros, de seguros, transportes y desplazamientos, materiales, instalaciones, honorarios del personal a su cargo, de comprobación y ensayo, tasas y toda clase de tributos, el IVA, el impuesto que por la realización de la actividad pudiera corresponder y cualesquiera otros que pudieran derivarse de la ejecución del contrato durante la vigencia del mismo, sin que por tanto puedan ser éstos repercutidos como partida independiente.

Kontratistak, Kontratuaren Ezaugarrien Taulako **12. atalean** adierazitako epean, kontratua gauzatzean bere eskuetara iristen den informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du, eta hori, hala egokituz gero, atal horretan bertan zehazten da, edo duen izaeragatik horrela tratatu behar dena izango da.

El contratista deberá respetar, durante el plazo indicado en el **apartado 12** del Cuadro de Características del Contrato, el carácter confidencial de la información a que tenga acceso con ocasión de la ejecución del contrato, la cual se especifica, en su caso, en el mismo apartado, o que por su propia naturaleza deba ser tratada como tal.

33. klausula. Obrak burutzea

Cláusula 33.- Ejecución del contrato

Obra horiek administrazio-baldintza partikularren orrietan jasotako estipulazioei eta kontratuaren oinarri gisa erabiliko den proiektuari hertsiki lotuz burutuko dira, eta halaber, interpretazio teknikoaren inguruan obren Zuzendaritza fakultatiboak kontratistari ematen dizkion jarraibideekin bat etorriz.

Las obras se ejecutarán con estricta sujeción a las estipulaciones contenidas en el pliego de cláusulas administrativas particulares y el pliego de cláusulas técnicas particulares que sirve de base al contrato y conforme a las instrucciones que en interpretación técnica de este diere al contratista la Dirección facultativa de las obras.

Jarraibide horiek ahoz emanak baldin badira, idatziz berretsi beharko dira lehenbailehen, alderdientzat lotesleak izan daitezen.

Cuando las instrucciones fueren de carácter verbal, deberán ser ratificadas por escrito en el más breve plazo posible, para que sean vinculantes para las partes.

Obrak egiten diren bitartean eta berme-epea betetzen den arte, eraikinean ikus daitezkeen akats guztien erantzukizuna kontratistarena izango da.

Durante el desarrollo de las obras y hasta que se cumpla el plazo de garantía el contratista es responsable de todos los defectos que en la construcción puedan advertirse.

Horrez gain, kontratistak bere kontura erantzungo die ondorengo alderdi hauei:

- Topografia osagarria eta zuinketakoa.
- Eragindako instalazioak, altzariak eta beste elementu batzuk hautematea eta nola kendu behar diren programatzea.
- Goian aipatutako elementuak berriz jartzea.
- Zerbitzu hornitzaileak diren enpresekin gestioak.
- Administrazioaren ekimenez kontratistari agintzen zaizkion edozein obra osagarri, obraren kontratu-baldintzen arabera eta indarrean dagoen legediaren barruan, adibidez, sarbideak berriz jarri edo egokitzea.

Además, los siguientes aspectos se atenderán por el contratista a su cuenta:

- Topografía complementaria y de replanteo.
- Detección y programación de retirada de instalaciones, mobiliario y otros elementos afectados.
- Reposición de los elementos anteriormente citados.
- Gestiones con empresas suministradoras de servicios.
- Cuantas obras complementarias a iniciativa de la Administración se encomienden al contratista adjudicatario con arreglo a las condiciones contractuales de la obra y en el contexto de la legislación vigente, tales como reposición o acondicionamiento de accesos.

34. klausula. Lan-programa

Cláusula 34.- Programa de trabajo

Kontratistak lizitazioaren memoria teknikoan aurkezten duen lan-programak, behar bezala justifikatuta, obraren finantzazioa exekuzio aldian zehar eta obraren funtsezko atalak zein epetan gauzatu behar diren zehaztuko ditu, eta horietako bakoitzean ordaindu beharko diren zenbatekoak ere zehaztuko ditu.

El programa de trabajo presentado por el contratista contendrá, debidamente justificados, la previsible financiación de la obra durante el período de ejecución y los plazos en los que deberán ser ejecutadas las distintas partes fundamentales en que pueda descomponerse la obra, determinándose los importes que corresponderá abonar durante cada uno de ellos

Kontratazio-organoak kontratua formalizatu eta hurrengo hamabost egunen barruan ebatziko du lan-programa, eta aldaketak sartzea edo agindu jakin batzuk betetzea ezar dezake, betiere kontratuaren klausulak urratzen ez badira.

El órgano de contratación resolverá sobre el programa de trabajo dentro de los quince días siguientes a la formalización del contrato, pudiendo imponer la introducción de modificaciones o el cumplimiento de determinadas prescripciones, siempre que no contravengan las cláusulas del contrato.

Lan-programa aldatu behar denean, obraren zuzendaritzak ziurtagiriak ez onartzea ematea erabaki dezake, harik eta kontratistak lan-programa behar bezala aurkeztu arte, baldin eta

Cuando deba modificarse el programa de trabajo, el director de la obra podrá acordar no dar curso a las certificaciones hasta que el contratista lo haya presentado en debida forma el programa de

hori nahitaezkoa bada, eta, hala badagokio, berandutza interesak jasotzeko eskubiderik gabe ziurtagiri horiek ordaintzean izandako atzerapenengatik.

trabajo cuando éste sea obligatorio, sin derecho a intereses de demora, en su caso, por retraso en el pago de estas certificaciones

35. klausula. Zuinketa egiaztatzea

